# GETXOKO UDALERRIAREN DINAMIZAZIO EKONOMIKORAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA, ENPRESARIEN ETA PROFESIONALEN ELKARTEEI ETA FEDERAZIOEI ZUZENDUTA. 2023. URTEA.

## 3. lerroa: Merkatarien eta ostalarien-jatetxeen elkarteak funtzionatzeko gastuetarako dirulaguntzak.

| | |
|---|---|
| ***Xedea*** | Getxoko merkatarien eta ostalaritzaren-jatetxeen elkarteek beren gain hartzen dituzten funtzionamenduko gastuekin laguntzea, era horretan ohiko funtzionamendua ahalbidetzeko. |
| ***Onuradunak*** | Getxoko udalerriko merkatarien eta ostalaritzaren-jatetxeen elkarteak, hurrengo baldintzak betetzen badituzte:<br>• Jarduera eta sozietatearen egoitza Getxoko udalerrian izatea.<br>• Getxoko elkarteen udal-erregistroan eta Eusko Jaurlaritzako elkarteen erregistroan inskribatuak egotea. |
| ***Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak*** | Diruz lagundu ahal izango dira deialdiaren ekitaldiko funtzionamendu-gastuak: alokairu gastuak, ondasun higiezinak amortizatzea eta egoitza sozialaren edo erakundeak jarduerak garatzen dituen beste espazio batzuen ohiko funtzionamendu gastuak.<br>Elkartearen jarduerak elkartearen jardueretarako bakarrik ez diren lokaletan egiten badira, gastuen egozpen-ehunekoari eta irizpideei buruzko dokumentua aurkeztu beharko da, organo eskudunak onartutakoa. |
| ***Zenbatekoa*** | Elkarte bakoitzak 20.000 €-ko dirulaguntza jaso ahal izango du gehienez. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuari dirulaguntzaren gehieneko ehuneko bat aplikatuko zaio, Dirulaguntzaren gehieneko ehuneko hori balorazio-irizpideak aplikatuz lortutako puntuen arabera ezarriko da, deialdiaren 19.4 eta 19.5 ataletan azaldutakoaren arabera. |
| ***Eskabideak aurkeztea*** | Laguntza-eskaerak telematikoki izapidetu beharko dira. Izapideak www.getxo.eus/aeb web orriaren bidez egingo dira.<br>**Ekainaren 2ra arte** |
| ***Ordaintzeko modua*** | 1. Lehenengoz %75a aurreratuko da, laguntzaren ebazpenaren unean.<br>2. Gainerako diru-laguntza, %25a, justifikatu eta baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren |



Getxo Elkartegia. Ogoño 1. 48930 ● Tel. 94 466 01 40 ● Fax. 94 466 01 49 ● www.getxo.eus/promocion-economica ● email: getxolan@getxo.eus

| | |
|---|---|
| ***Justifikazioa*** | Dirulaguntza aurreko ekitaldia itxi ondoren justifikatu beharko da, gehienez ere 45 egun baliodunetako epean, ekitaldia amaitzen denetik, deialdiaren 12.artikuluan eskatutako dokumentazioa erantsiz. |
| ***Informazioa non lor daitekeen:*** | ➢ BAO zenb.83, 2023/05/02<br>➢ Getxolan. Getxo Elkartegia. Ogoño, 1. Getxo. Tlfnoa: 94 466 01 40.<br>➢ E-maila: getxolan@getxo.eus<br>➢ WEB orrialdea: http://www.getxo.eus/promocion-economica |